



**Gorka Moreno Márquez**

◆ EHUko IRAKASLEA

## Gasteiz eta udal hauteskundeak: irabazi galtzeko

AURREKO ARTIKULU BATEAN gai honen inguruan idatzi nuen. Pitonisonarena egiten ere saiatu nintzen eta zeharka baldin bada asmatu nuen. Onartu behar dut, ez nuen pentsatzen PPK Gasteizen egindako hautuak hainbeste boto emango zionik. Dena den, azkenean estrategia hori bere kontra azaldu da. Lehen PPK alkatetza zuen eta hurrengo lau urteetan oposizioan emango du.

Gasteizen azken hilabete hauetan gertatutakoak irakaspén asko utzi dizkigu, batzuk oso baliagarriak etorkizunari begira. Lehenik eta behin, hori bagenekien aurretik Ikuspegi-Euskal Immigrazio Behatokiak egindako ikerketen bidez: Euskal Autonomia Erkidegoan badago jende kopuru garrantzitsu bat PPK bultzatutako ikuspegiarekin bat egin dezakeena. Beste era batera esanda, mota horretako diskurtsoetarako badago gizarte eta hauteskunde eremua. Bigarrenik, eta aurrekoari lotuta, azken hilabeteotako gertaerak argi utzi dute politikariek duten eragina eta indarra. Gizarte-

*“Gasteiz afera”ren kudeaketa politikoak eredu izan beharko du etorkizunean, landu eta aztertu beharrekoa. Alderdi politiko edo etorkinen inguruko leloak erabili nahi dituztenentzat ere argia da mezua. Diskurtso horrekin botoak lortu daitezke, baina honek ez du gobernatzeko aukerarik emango*

ren zati batean errotuta egon daitezkeen ideiek agenda publiko eta politikorako igaroaldian politikariek izugarriko ardura eta boterea izan dezakete, hauteskunde emaitzetan oso era nabarian ageri zaigu hori. Baina sua pizteko duten ahalmena, su hori bertan behera uzteko modukoa dela ere nabaria da. Zentzu horretan aipagarria izan da PPK ez bezala, gainontzeko alderdiek izan duten jarrera, bai hauteskundeak baino lehen, baita ostean egindako kudeaketan ere.

Azken ondorioa, azpimarragarriena, hauxe da: gehiengoaren diren gainontzeko alderdiak adostasunera ailegatu dira eta elkarbizitza arriskuan jartzen zuen diskurtsoaren aurrean batu dira, tartean egon zitezkeen zailtasun guztiak alde batera utziz. Nire aldetik eskerak eta zorionak alderdi guzti horiei, egin dutenagatik eta erakutsi duten ausardia eta eskuzabaltasunagatik.

Baina, orain zer? Gasteizen, hautsitako edo gutxienez ahuldutako zubi guztiak eraiki beharko dira, bai alderdien artean –guztiak–, bai gizartearen baitan. Gai hauetan dihardugunontzat uste dut *Gasteiz afera*ren kudeaketa politikoak eredu izan beharko duela etorkizunean, landu eta aztertu beharrekoa. Alderdi politiko edo etorkinen inguruko leloak erabili nahi dituztenentzat ere argia da mezua. Diskurtso horrekin botoak lortu daitezke, baina honek ez du gobernatzeko aukerarik emango. Bi aldiz pentsatu beharko dute, emaitza are paradoxikoagoa ezin baita izan: irabazi galtzeko. Badalona ere antzekoa gertatu da.

Benetan denok irabazle atera garela uste dut, Gasteiztarrak nabarmenki baina baita gizarte osoa ere. Eta segur aski denborak arrazoia emango dit. ■

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

[www.tradebi.com](http://www.tradebi.com)